



Usurbilgo Udala

ID06/2022-022

## ALKATE DEKRETUA

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera,

### IKUSIRIK

Usurbilgo alkateak 2022ko otsailaren 1eko 2022/0102 ebazpenaren bidez, Aparejadore prozesuko oinarriak onartu eta 2022ko otsailaren 8an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarriak argitaratu ziren.

2022ko otsailaren 28an Epaimahaia bildu zen eta 4. Hizkuntz Eskakizuna duten eta onartuen zerrendan dauden hautagaien merituak baloratu ondoren behin behineko zerrenda osatu zen.

2022ko martxoaren 11ean Epaimahaia bildu da epe barruan aurkezturiko erreklamazioak aztertzeko, eta ondoren, zerrenda zuzendu eta emaitza berriak ezarri dira. Aipatutako zerrendan berdinketak gertatu direnez, Epaimahaiaki zozketa egin du, oinarrietako 9. puntuan azaltzen den bezala, eta ondorengo zerrenda osatu zen

Halaber, puntuazioaren hurrenkera kontutan hartuz lan-poltsa osatuko zen.

Ondoren, eskeintza egin da eta 3 den Imanol Etxeberria Galarzak baiezkoa eman du. Aurrekoak ezezkoa eman dute.

Beraz, Epaimahaiaren proposamena kontutan harturik, zera:

### ERABAKI DUT

**LEHENENGOA.-** Aparejadorea/Zerbitzu eta mantenu saileko burua lanposturako (4.3 kodea) Imanol Etxeberria Galarza izendatzea 2022ko apirilaren 19tik aurrera eta lanpostua karrerako funtzionarioz hornitu arte, gehienez 3 urtez 2025eko apirilaren 18ra

**BIGARRENGOA:** Izendapenaren ezaugarriak hauek izango dira: A2 sailkapen taldea, %100eko lanaldia eta Udal ordainketen taulako 19. mailari dagozkion ordainsariak.

**HIRUGARRENGOA:** Akordio honen berri interesatuari ematea.

#### Erabakiaren aurkako errekurtsioak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsioa aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.
- Non: Alkatetzara jo behar da.



Usurbilgo Udala

**ID06/2022-022**

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsuaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsuaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

**Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena alkateak. Usurbilen, dekretuaren datan.**

**ALKATEA**

**ORDEZKO IDAZKARIA**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUaa1d0132-8fbc-4488-9dae-4786179ec026**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022ID060027-ID06\_Dekretua/ID06\_Dekretua (ETXEBERRIA,GALARZA,IMANOL)